



Geologo eta espeleologoentzat ikergai agortezina da Pazko uhartea, hodi bolkanikoek sortutako ehunka laba kobazulo dituelako, besteak beste. ARCAZKAK: JABIER LES

# Munduaren zilborreraino

Rapa Nui 2007  
Pazko uharteko  
espedizio zientifikoa  
abiatuko da laister.  
Jabier Les euskal  
espeleologoak gidatuko du

MIKEL CARRAMIÑANA  
Bilbo

**E**spazioa ikertzen hasi direnetik, askok uste dute Lurraren azalean ezer gutxi gerra daitekeela deskubritzeke, ikertzeko interesgarria denik behintzat. Hala uste duenak, baina, oker dabil; izan ere, badira oraindik gizaki gutxi zapaldutako lur eremuak, Pazko uhartea kasu, Txilen. Biztanleak dituen munduko lekurik bazterrena da Rapa Nui: Pitcairn irletatik 2.075 kilometrorra eta Txileko kostalde-

tik 3.600 kilometrorra dago. Pazko uharteko lurra berezia da espeleologo eta geologoentzat eta, horregatik, zientzialari asko saiatzen da han ikerketak egiteko baimenak lortzen, euskaldunak barne. Jabier Les euskal espeleologo eta argazkilaria gidatuko du, hain zuzen ere, otsailean abiatuko den espedizioa.

Duela bi urte, Rapa Nui 2005 espedizioa egin zuten Jabier Les eta Gaizka Carretero espeleologoek, Urtzi Uriarte ingeniariarekin eta Txileko bi zientzialarirekin batera. Orduetik agindu zuten bueltatu zirela, ikerketa gehiago egiteko asmoz, eta laister, otsailaren 8an, Pazko uhartera itzultzeko ametsa beteko dute. Les eta Carreterok taldeki berriak izango dituzte oraingoan: Paolo Forti eta Franco Cucchi geologo italiarrak, batetik; Almeriako Unibertsitateko Jose Maria Calaforra geologoa, beste-

tik, eta Ivan Saez de Egilaz espeleologo gasteiztarra, azkenik.

Aurreko bidaian bildutako datu guztiak aztertu ondoren, oraingoan ikerketa sakonagoak egiteko helburuarekin joango dira: «Orain dela bi urte uharte osoa ikusi nahi genuen eta gainetik ikertu genuen; orain, berriz, aukeratutako tokiak hobeto aztertuko ditugu». Jabier Les pozik dago, espedizioa egiteko baimena lortu dutelako: «Zailtasun handiak izaten dira, Txileko Gobernuak eta Rapa Nui-ko Zaharren Kontseiluak onartu behar dutelako». Alabaina, aurreko espedizioan harreman ona lortu zuten herritarrekin eta, horri esker, bueltatzeko aukera izan dute.

Hiru sumendi sistema daude Pazko uhartean eta, horren ondorioz, lur azpian milaka hobi bolkaniko sortu ditu naturak. Horrela, ehunka laba kobazulo dago eta, gehienak sailkatu badituzte ere,

inork ez ditu ikertu guztiak. Garrantzitsuenak aztertzea izango da, beraz, xedeetarikoa bat.

**GIZARTEITXIA.** Gaur egun, 3.500 biztanle inguru ditu Pazko uharteak, eta kanpotarrei «arruntak» iruditzen zaizkien arren, Lesen esanetan, «oso itxiak dira eta, itxura kristaua eman nahi badute ere, aspaldiko tribuen errituak egiten dituzte ezkutuan». Otsailean joan nahi izan du euskal espeleologoak, orduan egingo dutelako *Tarati* izeneko festa. Askotariko probak bete behar dituzte erritu horretan. Kanpotarrek, ikusi nahi badute, besteak beste, haien moduan jantzi beharra dute; «beraz, erdi biluzik joango gara». Halako ospakizunetan «antzina bezala» sentitzen direla uste du Lesek.

Duela mende erdi rapanuitar asko kobazuloetan bizi ziren eta «oraindik ere, bost lagunek ohitu-

rari eutsi diote». Antzinako herritarrek *Te pito te henua* izenarekin bataiatu zuten lurraldea, *munduaren zilborra* esanahia duten hitzekin. Ezagunagoa da, alabaina, *Rapa Nui* (uharte handia) izena. Historian, une latzak igaro izan dituzte, tribuen arteko gerrak kasu eta, batez ere, Peruk esklabo gisa herritar gehienak eraman zitueneko. XIX. mendearan amaieran 111 lagun inguru baino ez ziren gelditu irlan.

Espedizioaren emaitzak *National Geographic* aldizkarian plazaratuko dituzte eta, horretarako, Jabier Lesek bereziki landuko ditu egin asmo dituen argazkiak. Hiru dimentsiotan moldatuko ditu irudietako batzuk. Horrez gain, eguneroko lanaren eta ikerketen berri *rapanui2007.blogspot.com* webgunean plazaratuko dute, nahi dutenek bidaiaren nondik norakoak ezagutu ahal izateko.